



2022ko ekaina

BIZIKLETA BIDEEN LURRALDE PLAN BERRIA GIPUZKOARENTZAT

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialaren berrikuspena jarri du abian. Plan hori 2013an onartu zen, jarduera-programetarako ezarritako 8 urteko epea amaitu ondoren. Plan hau lurralde antolamenduaren figura da, bizikletentzako eta oinezkoentzako bide-sarea lege mailarekin egituratzeko erabiltzen dena, Gipuzkoako eskualde guztiak konektatzeko eta udalerrri nagusiak lotzeko, inguruko lurraldeekiko loturak ere kontuan hartuz. Sare horrek bizikletaren sistema integral bat artikulatzen laguntzen du, hiri barruko eta hiriarteko garraiorako bizikletaren erabilera sozializatzerara bideratua, aisialdiari, bizikleta-turismoari eta oinezkoen mugikortasunari erantzuteaz gain.

Une honetan, Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareak 235 km ditu zerbitzuan, eta 2021ean oinez eta bizikletaz egindako 7 milioi joan-etorri erregistratu zituen. Fluxu horiek etengabe hazi dira Plana onartu zenetik, eta bikoiztu egin dira azken lau urteetan.

Planaren berrikuspenari esker, besteak beste, Sare honetan egiteke dauden tarteetarako programazioa eta inbertsioak egokitu ahal izango dira, datorren hamarkadan Gipuzkoako udalerrrien arteko eta eskualdeko mugikortasun aktiboaren funtzionaltasuna eta segurtasuna finkatzeko. Hala, Klima Aldaketaren Aurkako Borrokarako Gipuzkoako 2050 Estrategian -Gipuzkoa Klima 2050-, ezarritako klima-egokitzapenerako eta emisioak murrizteko beharrei ere erantzun nahi zaie.



SELECCIÓN DOCUMENTAL

Gaur egun, 2.400 pieza dokumental baino gehiago daude gure datu-basean gordeta. Hona hemen interesgarriak iruditzen zaizkigun dokumentu batzuen erreferentzia labur bat.



Ciclogística. Recomendaciones para el impulso de la ciclogística en ciudades

Ruth Lamas y Benjamí Aguilar.
Red de Ciudades por la Bicicleta

Gida honen helburua hirietan mikrohub bidez ziklogistika-proiektuak garatzeko kontuan hartu beharreko elementu nagusiak biltzea izan da. 2019. urtearen amaieran Ziklogistikari buruz egin zen Jardunaldi batean egindako gogoen emaitza da argitalpena, eta hirietan ziklogistika-proiektu bat ezartzeko prozesuan kontuan hartu beharreko gomendioak eta fasaak zehazten dira. Karga-zikloei eragiten dieten arauak ere jasotzen ditu.



Ciudadanos a pedales. El laberinto de la movilidad

Diego Ortega Botella. Institució Alfons el Magnànim-Centre Valencià d'Estudis i d'Investigació. 2020.

Bizikletaren eguneroko erabilera València hirian ikus daitekeen errealitatea da, azken urteotan sendotzen joan dena. Politika publikoek ere eragin dute, herritarren artean emaitza eta erantzun ezberdinak lortu dituzten programa eta jarduketaren bidez. Antropologia sozialetik, Diego Ortegak bizikletaren joan-etorriak Valenciako kultura lokalean islatzen ditu, lortutako aldaketaren protagonista sozialen testigantzatik abiatuta.

Ciudades 30. Calles seguras

Gea21. Trafiko Zuzendaritza Nagusia. 2021


Noranzko bakoitzeko errei bateko herri barruko bideetan 30 km/h-ko abiadura-muga berria (2021eko maiatzaren 11n indarrean sartu zena) aplikatzeko materiala da. Muga horrek Espainia osoko udal-bideen hiru laurdentan eragina izan dezakeela uste da.



Cómo promover el buen uso de la bicicleta. Exposición del ciclista en ámbito urbano: diagnóstico y recomendaciones

WAA. Banco Interamericano de Desarrollo. Universidad de los Andes y Hill Consulting.
Editores: Hill Consulting. 2017.

Lana honako premisa honetatik abiatzen da: eguneroko hiri-garraio gisa bizikletaren erabilera sustatzea hirien bizi-kalitatea eta pertsonen osasuna hobetzearen aldeko apustua da. Baina onura indibidual eta kolektibo horiek gauzatuak eta indartuak izan daitezten, dokumentuan planteatzen da hiriek ulertu egin behar dituztela txirrindularien eta beste bide-eragile batzuen arteko interakzioaren inplikazioak. Eta, hortik abiatuta, ekimenak abiarazi behar dituztela politika publikoen, azpiegituren diseinuaren eta herritarren partaidetza-estrategien arloan, hiritxirrindularitza modu osasungarri eta seguruan egin dadin, ingurumen-osasunaren eta bide-segurtasunaren azterketan oinarrituz, hain zuzen ere.





III Convención Nacional sobre Seguridad Vial de las Policías Locales. Patinetes y compañía. ¿Una revolución en la movilidad urbana o más de lo mismo?

Alfonso Sanz-en aurkezpena. 2019ko urria

Sanzen ponentziak, besteak beste, “mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak” deitzen diren gailu ugariren inguruan dagoen nahaste terminologiko eta kontzeptualaren azterketa jasotzen du. Arauak aplikatzeko dauden zailtasunei eta hutsuneei ere erreparatu die, eta ondorio batzuk atera ditu.



CICLOSFERA #40

Zikloturismora bideratutako udako zenbakia. Asturiasko Hartza-ren Bideari buruzko informazio zabala du, besteak beste; bizikleta elektrikoan bidaiatzearen ezagueriak ere deskribatzen ditu. Eta, beti bezala, bizikletari buruzko informazioa musikan, zineman edo arkitekturan.



La sociedad del pelotón. Filosofía del individuo dentro del grupo

Guillaume Martin. Libros en Ruta. 2022

Cofidis taldeko liderrak txirrindularitzari eta egungo gizarteari buruzko hausnarketa egin du, kirol modernoaren ahuleziak oro har gizarte demokratikoaren gaitzen adierazle direla baieztatuz. Gizarte hori gero eta indibidualistagoa dela dio, eta,aldi berean, erronka global kateatuei aurre egin behar diela, eta Guillaumek kirol txirrindularitzarekin paralelismoak egingez argitu ditu. *ConBici-k aukeratua.*



Andar en Bici. Cycling / Bizikletan. 8. zk.

2022ko uztaila/abuztua

Udako ale honetan, *Bide-Hezkuntzaren aldeko Konpromisoa* izeneko III. Foroari buruzko artikulubat jasotzen da, Martin Fiz eta Joseba Belokirekin egindako elkarrizketa, Senegalgo bizikleta solidarioen *Baobikes* proiektuari buruzko informazioa, beste hainbat informazio eta artikuluren artean.



Guía de composición y Diseño Operacional de Ciclovías

Ministerio de Transportes y Telecomunicaciones. Gobierno de Chile. 2020

Material hori dokumentu orientatzailea da, eta bizikleta-bideak ezartzean kontuan hartu beharreko eragiketa- eta segurtasun alderdietan oinarritzen da. Gida era horretako bideetan barna ibiltzeko arauak eta 2015az geroztik dagoen Azpiegitura Integratzailearen Diseinu Eskuliburua osatzeko tresna da. Egitura eta edukia tresna modularrak eta malguak dira, eranskinak edo eguneratzeak gertatzeko.

GOMENDIOA

Esther Anaya bizikleta-mugikortasuneko aholkulariak eta ikertzaileak bizikleta *Bizikleta bidezko mugikortasuna udal ordenantzetan jasotzeko gomendio teknikoak* argitalpena aurkeztu digu.

ESTHER ANAYA
Consultora e investigadora de movilidad en bicicleta

NOTICIAS

Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Lege Proiektua



Martxoaren 29an Gobernu Kontseiluak onartutako Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Lege Proiektua Legebiltzarrean dago, izapideak egiteko. Arauaren helburua da "pertsonek eta merkantzien garraioak bete behar dituen printzipioak eta helburuak ezartzea, mugikortasun jasangarri eta seguruaren garapen integrala lortzeko, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun jasangarria lortzeko beharrezkoak diren tresnak eta prozedurak antolatzea ere".

Velo-city 2022



Europako Txirrindularien Federazioaren urteroko ekitaldia Liublianan (Eslovenia) egin da aurten ekainaren 14tik 17ra. Aurtengo leloa *Cycling the Change* izan da (*aldaketa pedaleatzen*). Topaketa erreferentea da mundu-mailan, txirrindularitza garraibide jasangarri eta osasungarri moduan sustatzeko ezagutza- eta hausnarketa-agera gisa. Konferentziak ezagutzak trukatzeko eta politikak transferitzeko topaketak eskaini dizkie bertan parte hartu duten 1.400dik gora parte-hartzailei eta txirrindularitzaren sustapenean eta hirien eraldaketan diharduten 60 herrialderi, non bizikletaren erabilera konponbidearen parte den, are gehiago egungo krisi klimatikoan.



Dervla Murphy hil da

Joan den maiatzaren 22an hil zen, 91 urte zituela, Dervla Murphy ziklo-bidaia irlandarra eta liburu askoren egilea. 1965ean argitaratu zuen bere lehen liburua, *Full Tilt: Ireland to India with a Bicycle*, non European, Iranen, Afganistanen, Pakistanen eta Indian bizikletaz egindako bidaia kontatzen duen. Beste liburu batzuetan Hego Amerika, Madagaskar, Kamerun, Errumania, Afrika, Laos, Jugoslavia ohia edo Siberiako estatuak bizikletaz zeharkatzen bizi izandako abenturak deskribatzen ditu. Devla globalizazioaren aurkako borroka-rekin, energia nuklearrarekin edo klima-aldaketarekin konprometitutako emakumea izan zen, eta solidarioa bidaiatu zuen komunitateen sufrimenduari.



AGENDA

2022ko Europako Mugikortasunaren Astea



Europako Mugikortasunaren Astea (SEM), Europar Batasunak sustatutako ekimena, irailaren 16tik 22ra egingo da urtero bezala. *Konbinatu eta mugitu zaitez* lelopean, aurtengo edizioak pertsonen eta merkantzien hiriko joan-etorrietan garraibide desberdinen erabilera eta konbinazioa sustatuko du, eraginkortasun, azkartasun, aurrezpen eta iraunkortasun handiagoa lortzeko. Konexioak hobetzeko bost zutabeak honako hauek dira: pertsonak, lekuak, garraio publikoa, politika publikoen plangintza eta koherentzia.

CONAMA 2022



Azaroaren 21etik 24ra Ingurumeneko XVI. Biltzar Nazionala (CONAMA 2022) egingo da Madrilgo Kongresu Jauregian. Aurten 9 multzo handitan antolatu da topaketa, eta horietako bat mugikortasunari buruzkoa da. Dagoeneko lau lantalde eratu dira: Mugikortasun iraunkorrerako gobernantza; Hirigintza eta mugikortasuna; Lanerako mugikortasuna: nola sustatu bizikletaren erabilera; eta garraioa deskarbonizatzearen sustapenari eskainitako beste bat.

CONAMA 2022
CONGRESO NACIONAL DEL MEDIO AMBIENTE

Hiri Osasunari buruzko Nazioarteko 18. Biltzarra



Valentziak International Society for Urban Health (ISUH) erakundearen Hiri Osasunari buruzko Nazioarteko Kongresua hartuko du urriaren 24tik 27ra. Gobernuak kanpoko erakunde hori hiri-osasunaren sustapenean oinarritzen da. Aurtengo topaketak goiburu hau du: *Gure komunitate globala hazten. Gidatzeko ekintza. Berdintasuna bermatuz*. Horretarako, kongresuak sei azpigai nagusi aurreikusten ditu: Hiri-ingurune naturalak eta ekosistemak; Hiri-osasunaren bideak; Hiri-inguruneen eraldaketa osasunerako; Errealitate bihurtzea; Guztiontzako bidezko hiriak eraikitzea; Ebidentzia eta praktika Valentziatik eta Espainiatik.



Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazioa Zentroa

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunen espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak biltzen ditugu, baina, horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektronikoko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa

Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia
943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | cristinaenea.eus/zikloteka

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 09:30 - 18:00*h.

Larunbata: 10:00 - 14:00 / 15:00 - 19:00h.

Igande eta jai-egunak: 10:00 - 14:00h.

*Ordubete gehiago ekainean, uztailan, abuztuan eta irailean



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro